



Libe Olabarrieta:
Arrasate
Gidaren egilea



Aner Arregi
intsumisoen
eguneko
antolatzaile.



Zer nahiago?
Joseba Zubiaga
Musakola
gasolindegikoa

PRESS Arrasate

ERREPORTAIA

Herri aldizkariaren gorakada

Urteotan Deba Garaian euskarazko herri aldizkariak irakurtzen dira gehien. / 20

Ostirala, 1995eko ekainaren 9a / 280. zenbakia

II. Intsumiso Eguna

Zapatuan II. Intsumiso Eguna ospatuko dute Arrasateko Antimilitaristek. Goizean bizikletaz San Prudentzioren abiatuko dira, Gurutze Gorriaren aurrean biltzeko. Eguerdiaren poteoaren ondoren, ondoren bazkaria Seberon eta arratsaldean kontzertuak eta antzerkiak izango dira Arrasateko sei taberna desberdinetan. Gauean, berriz, kontzertu sorpresa izango da gazte-txean. / 6-7

25.000 mila pertsona espero dira Egunkaria jaian

Euskaldunon Egunkariako jaiak ospatuko dira Arrasaten domekan. Festa hiru gunetan egongo da kokatuta, Monterrongo parkean, Otalora kalean eta gaztetxoentzat Kondekuan, Monterron azpiko zelaietan. Jaiaren egunean Maalatik Muxibarreraino itxita

egongo da kalea, eta aparkaleku bereziak egokituko dituzte: Musakola kiroldegikoa, Maxi Eroski, Estazio Zaharra, San Andresko Eskatu Pablioko aparkalekuak, Caja Laboralekoa, Fagor San Andresen dagoena, Iturripeko kiroldegikoa eta Lora-

mendi kalean eta baita Laubide aparkalekuan ere. Guztira 3.326 kotxeentzat lekua egongo da. Goizeko 11etatik arratsaldeko 7ak arte musika eta ekitaldi desberdinak izango dira festa gunetan eta horrez gain, 6 txozna jarriko dira, hiru Mon-

terronen eta beste hiru Otalora kalean. Material salmenta egiteko ere txoznak izango dira eta baita borondatezko sarrerak erosteko ere. Egitarau zabalena egiten saiatu dira antolatzaileak eta dena ondo irten dadin 400 lagun ibiliko dira lanean.

Zaldibar Txapelketan final handia

Adelaida Haizea eta Zuloak taldeen arteko final handia jokatuko da bihar Setatik aurrera Zaldibarren. Partidu horren bidez bukatu emango zaio 1.500 pertsona inguru bildu duen txapelketari. / 17-20



egizabal



Bidekurutzeta, 13
BERGARA
Tfnoa: 76 12 28

**poltsak
oinetakoak**

Ferrerias, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 01

Busti zaitez euskaraz! Uda Ikastaroa 95



Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Telefonoak: 79 70 77 • 79 77 88 • ARRASATE

Arrasateko Udal Euskaltegia

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak

Matrikulaldia: Ekainaren 1etik 17ra arte

Prezioa: 6.700 pezeta
Materialea: 1.500 pezeta
2.500 pezeta 9,10,11,12 urratsekoek eta
Alfabetatze 2koek (materialea)
16 urtetik gorakoentzat Beka sistema daukagu



Arrasateko
Udala

Euskal Unibertsitatea Deba bailaran

Duela gutxi azaldu da prentsan Arrasate aldean Unibertsitate bat egiteko asmoa dutela Eskola Politeknikoak, ETEOk eta Irakasle Eskolak, 3 unibertsital zentru kooperati-boek batera.

Harriduraz eta pozik jasotako berria da hau.

Izan ere horixe litzateke euskal komunitate zientifiko-intelektuala sendotzeko bidea. Hontarako, jakina, euskarak beharko luke izan Unibertsitate honetako lan eta komunikazio tresna.

Euskal Herrian sortutako unibertsitate guztiak Ipar eta Hego aldean, erderaz sortuak izan dira eta erdera dute hizkuntza nagusi. Unibertsitate egitura horien eraikuntzarako oinarria erdara izan da; euskara gerora sartu da.

Euskara egoera apalean aurkitzen da Euskal Herriko Unibertsitateetan. Eta estimazio eza hori ikusteak eten lezake ikasle eta irakasle euskaldunen ahalegina, berriro erderara itzuliz.

Euskal Herriko Unibertsitate modelo ere Espainiatik eta Frantziatik hartu da, guztiz ierarkizatua. Eta ez da modelo prestigiodunena. Berriro ere Estatuetik lotura eta morrontza azaltzen da, euskararen normalizaziorako kaltegarri dena.

Badira munduan zehar hizkuntza

batetik bestera pasa diren Unibertsitateak. Lovainako Unibertsitate katolikoaren kasua da bat. Latinaren ondoren, frantsesa zen aintzinako hizkuntza prestigioduna; flandrierazko eta frantsesezko sail bana zeuden gero bertan. Flandriera hizkuntzari zegokion lurraldean barnean zegoela Lovaina zehaztu zen gero, 1963 aldera. Berehala hasi ziren bertakoak flandriera garatu eta frantsesezko saila kentzeko eskatuz. Eta baita lortu ere 1978 aldera.

Gure artean, duela 30 urte genuen irakaskuntza, ez zen gaurkoa. Eskola "nazioaletan" eta erlijiosoetan Espainiako kultura eta hizkuntza zen erabiltzen zen tresna. Euskal Herriari erantzuten ez ziola eta sortu ziren ikastolak. Ordura arteko hezkuntza astindu zuten, euskal kulturaren zentratuz eta pedagogi berritzaileak martxan jarritz.

Halako giroan ikastolak sortu eta aurrera ateratzen asmatu dugu. Beste leku batzuetan beraien hizkuntza eta kultura 2. mailako lekutik lehenengora pasatzea lortu dute. Unibertsitate proiektua duten 3 zentru horietako talde eragileak, ba ote du adorerik eta ausardiarik euskara eta euskal kultura komunikazio tresna ezarritz proiektua bideratzeko?

RUFINA OLASAGASTI

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaureritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafia mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozeta. © **ARRASATE PRESS.** Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa
Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia
Laguntza terapia
Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

•••••
**Argiak pizturik
eta teloa itxita**

Goiz-goiz jeiki ginen, buruan gidoiak buelta-ka genituela. Hurbiltzen zihoran ordua, Amaiako fokoak prest... teloa zabaldu eta goizeko ekitaldia hasi zen. Esperientzia zirrargarria izan zen: lau hilabeteko lana erakutsi genuen eta pozik geunden guztiok, nahiz eta gure ahotsen ozentasunarekin arazoak izan.

Arratsalderako konfiantza gehixeagorekin ekin genion gure lanari. Baina ez zen berdina izan: hango plastiko eta pipa zarata, batzuek walman-ak belarrietan, beste batzuek biraoka (emagalduei buruzko informazio ugari edo gure defektu sikologikoei buruzko aipamenak barra-barra)... Eta teloa itxteko erabakia... etena... urduritasuna gainezka... negargurea... frustazioa... gure lan guztiaren gainbehera.

Halere, hitzokin ez dugu salaketa hutsean geratu nahi. Guretzat esperientzia oso aberasgarria izan dela aitortu behar dugu eta urtero antolatzerantz animatu nahi dugu Udaletxea. Eskertu nahi diogu gainera Amaiako ardura-dunari eskeini digun laguntza eta animoa eta ea hurrengo urteetan denok errespeto gehiagoz jasotzen dugun eskeintzen diguten lana. Guk behintzat asko ikasi dugu

horri buruz. Eta prest gaude datorren urtean berriz ere eskenatokira igotzeko. Hala balitz!

**SAN FRANTZISKO
XABIER IKASTOLAKO 7.B**

•••••
**Arrasateko
herriari**

Herri Batasunak eskertu egin nahi dio Arrasateko herriari bere kandidaturari eman dion konfidantza. Konfidantza honek posible egin du gure garaipen elektoralora berriztatzea.

Hau dela eta zera adierazi nahi dugu: legislatura berri honetan ere intsumitu, euskalduna, herritarren parte-hartzearen defendatzailea, errepresioari aurre egingo dion eta arlo soziala garatuko duen Udala mantentzen jarraitzeko publikoki hartzen dugula konpromezua. Era berean orain arte eramandako gestioaren lerro esangu-

ratsuenak garatzeko eta orain arte nahiko bultzatu ez diren arlo aurrerakoietan sakontzeko konpromezua hartzen dugu.

Gure Udala zabalik dago betidanik ezagun egin gaituzten bi oinarrietan lan egin nahi duten guztientzat. Lehenik eta behin, oinarri abertzale batetik, zabalik dago gure autogobernua, autodeterminazioa, euskara eta herri honen nortasunaren ezaugarrien alde lan egiteko prest dauden guztiak. Bestetik, oinarri sozial batetik, zabalik dago partaidetasuna, ekologia, enpleguaren aldeko borroka eta emakumearen, Hirugarren Munduaren, marjinatu zein desfavoratuen defentsa bultzatu nahi duten guztientzat.

Orain eta hemen, Euskal Herriko demokrazia, autodeterminazioa, justizia eta bizitza suposatuko duen bake duina eraikitzea animatu nahi zaituztegu guztiok.

**ARRASATEKO HERRI
BATASUNA**

Oharra


Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzelearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Zer iruditzen zaizu Euskaldunon Egunkaria?




Iban Agirreurreta
Ikaslea
(23 urte)

Batzutan irakurtzen dut eta ondo dagoela uste dut. Dena dela, beste egunkari batzurekin konparatuta, beharbada sinpleagoa da.




Javi Baztan
Ikaslea
(23 urte)

Idea ona iruditzen zait baina euskaraz oso ondo ulertzen ez dudanez ez dut irakurtzen, batzuetan gainbegirada bat ematen diot.



Xabi Urtubi
Ikaslea
(21 urte)

Nire etxean beste egunkari bat erosten da eta ez dut irakurtzeko ohiturarik. Hala ere, esku artean izan dut eta ondo dagoela iruditzen zait.



Rosa Mari Maiztegi
Langilea
(46 urte)

Bai egunero irakurtzen dut eta orokorrean ondo dago baina herrietako albisteak falta zaizkio. Herrietako informazioa izango balu ederto egongo litzateke.



Nerea Belategi
Irakaslea
(25 urte)

Batzutan irakurtzen dut eta ondo dagoela iruditzen zait. Gainera euskara hutsez dugun lehen egunkaria da eta hori oso ondo dago.




Idoia Errarte
Langilea
(28 urte)

Egunkaririk irakurtzeko ohiturarik ez dut, beraz, Euskaldunon egunkaria ere ez dut irakurtzen. Irratian entzuten ditut albisteak.



Ainhoa Zenigaonandia
ikaslea
(11 urte)

Nire gurasoek egunero erosten dute, astelehenetan izan ezik, ez dagoelako. Ondo dagoela uste dut.



Josu Zalama
Langilea
(34 urte)

Ez dut ondo ulertzen eta gainetik begiratzen dut. Gaztelarazko egunkariak erosten ditut baina Euskaldunon egunkaria ez.

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ESLU
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Sanita Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko).....	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua ..	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Montterongo liburutegia	
Montteron.....	77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 9

Eguez eta gauzez :Mozos. Bergara
22.00ak arte: Irizar. Erguin.

Larunbata 10

Eguez eta gauzez : Camacho.Bergara
22.00ak arte: Amezua. Santamaina

Igandea 11

Eguez eta gauzez : Camacho.Bergara
22.00ak arte: Ruiz. Maala.

Astelehena 12

Eguez eta gauzez :Puy. Bergara
22.00ak arte: Morales. San Andres.

Asteartea 13

Eguez eta gauzez: Cuellar. Bergara.
22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 14

Eguez eta gauzez : Esterillas. Bergara.
22.00ak arte: Español. Iturriotz

Osteguna 15

Eguez eta gauzez : Mozos. Bergara
22.00ak arte: Corcuera. Musakola.

9 OSTIRALA

• ZINEA

“Cuernos de mujer” 7etan eta 10etan.

• UR JAIA IGERILEKUAN

Ur jaia 95 Musakolako igerilekuan. Eguerdiko 12etan hasi eta zapatuko eguerdiko 12etan bukatu.

• ZAHARREN ASTEA

“Zabale anaiak” trikitalarien emantaldia Iturbide egoitzan, arratsaldeko 6etatik 7.30etara

• ASTROLOGIARI BURUZKO HITZALDIA

Aretxabaletako Tril emakume taldeak Astrologiari buruzko hitzaldia antolatu du. Hizlaria Fermin Alziguren. Loramendiren lokalean arratsaldeko 7etan.

• PIANO EMANALDIA

Arrasate Musikaleko ikasleen piano emanaldia arratsaldeko 6.30etan, Arrasate Musikaleko areto nagusian.

• KONTZERTUA

Short fuse (Louisiana Blues), Amaia antzokiko hallean, gaueko 9etan. Sarrera: 300 pta.

10 LARUNBATA

• ZINEA

“Salto al vacío” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• HIRU HANDIAK

Gorbea, Anboto eta Aizkorri.

• ESKORIATZAKO KIROLDEGIKO INAUGURAZIOA

Goizeko 10.30etan eta 11.30etan saskibalo partiduak. 12etan inaugurazio ofiziala. 12.30etan kadeteen saskibalo neurketa. 4.30etan aerobic eta arte martzialen erakustaldia. 7.30etan saskibalo neurketa.

• HIRUGARREN MUNDUAREN ALDEKO JAIALDIA

Zuzen hirugarren Munduaren aldeko elkarteak antolatuta jaialdia Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Gaueko 10etan bertsolariak. Laja trikitalaria eta Bergarako dantzariak dantza sueltoan ari tuko dira. Sarrera dohainik.

• ARRASATE KANTARI

“Arrasate kantari” kantu jaialdia Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Zortzi kantu abestuko dira eta saioa bukatzeko guztien artean “Agur Jauna” abestuko da. Aurkezlea Juanito Saizar izango da.

• INTSUMISOEN EGUNA

Bizikleta martxa 10.30etan Arbolapetan eta 11etan San Prudentzian kontzentrazioa. Eguerdian poteoa trikitalariak alaituta. 2.30etan Herri bazkaria, babajana (euria eginez gero, Gaztetxean, bestela, Seberon). Arratsaldean 6etatik 9etara kontzertuak taberna desberdinetan: Lagunillan, SS-77, Iluntzen Xementerio, Udaitzen Los Pichones, Bionan Txusma eta Iskanbila, Jai-zalen Brutal Melody eta beste bi talde, Gure Lekun Txirta antzerki taldea gaueko 8etan. Gaueko 10.30etan kontzertu sorpresa Gaztetxean. Teloneroak Def con 2.

11 IGANDEA

• ZINEA

“Salto al vacío” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ZAHARREN ASTEA

Goizeko 11etan meza Egoitzako kaperan San Viator ikastolako abesbatzarekin.

• GIMNASIA ERRITMIKAKO ERAKUSTALDIA

Arrasateko gimnasia erritmikako taldeak erakustaldia eskeiniko du Iturripeko kiroldegian eguerdiko 12etatik aurrera.

• EGUNKARIA FESTA


Monterron parkean. 11etan Dulztzaina. 11.15etan txalaparta. 11.30etan dantzariak. 12.etan Mikel Markez. 12.45etan trikixita kontrairo taldea. 17etan bertsolariak: Estitxu Arozena, Jexux Mari, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. 17.30etan Oskorri. 18.40etan Exkizu eta 20etan E.H. Sukarra. Otalola Kalean: 11etan Trikitixa. 11.30etan Kaxiano eta Markos Landa. 12.30etan txalaparta. 12.40etan dantzariak. 13.10etan barriketariak. 13.30etan bertsolariak: Jon Sarasua, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. 17etan Bittor Aiape, 18etan Gozategi eta 19etan Arkaitz taldea. Umeen gunean Sebastopoleko Titiriteroak egunean zehar.

• ARGAZKI RALLYA

Asa taldeak antolatuta argazki rallya. Izena ematea: Herriko plazan 8.30etatik 9.30etara. Prezioa: 1.000 pta. hamaketakoa barne, AEDn.

• ORGANO-EMALEEN ASTEA

Organo-emaleen astea izan dela eta, Arrasateko hainbat lagun kalera aterako da, trasplantei buruzko informazioa ematera. Portaloiari izango dira goizeko 10etatik eguerdiko 3ak arte.



ORGANO EMALEEN ASTEA

12 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Salto al vacío" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO 25. URTEURRENA**
Kirola eta aisialdiaren hamabostaldia. Areto hockeya, boleibola eta herri kirolak goizeko 11etatik 2.30etara.
- **HITZALDIA**
Gaia: umeak. Hizlaria: Begoña Garmendia, haur-psikiatra. Monterrongo Haur Liburutegian arratsaldeko 6etan.

13 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Salto al vacío" 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.
- **SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO 25. URTEURRENA**
Goizeko 11.30etan San Andres eta Erguinen arteko saskibaloi partidua. 3.30etan merendola.

14 ASTEAZKENA

- **SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO 25. URTEURRENA**
Futbito partiduak, goizeko 11.30etan San Andres eta Erguin aurrez aurre, 12.30etan San Andresko neskak eta Erguingoak nor baino nor.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
Gaia: "Ekialdetik Euskal Herrira". Egilea: Javier Juanes. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan arratsaldeko 5.30etan.

• **OPORREI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: "Hobeto ibiltzen eta erabakitzen laguntzeko". Hizlariak: Jon Etxeberria (Ibiltari agentziakoa), Arantza Arregi (Euskadiko Kutxako langilea), Aniceto Mardas (brigadista) eta Danel Gokolea (Auzolantegiak), arratsaldeko 7etan Monterronen. AEDk antolatuta.

15 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Halfaouine" Amaia antzokian. Sarrera: 300 pta. eta gazte txartelarekin 250 pta.
- **SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO 25. URTEURRENA**
Areto hockeya eta herri kirolak goizeko 11.30etatik 1.30etara.

ARRASATE KANTARI AMAIAN

Ekainaren 10ean Arrasate kantari kantu jaialdia Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Zortzi taldek hartuko dute parte. Talde batzuk instrumentuekin lagunduta abestuko dituzte euren kantuak eta beste batzuk barik. Talde gehienak Arrasatekoak dira.



MASKARADA ANTZERKIA

Ekainaren 16an Maskarada antzerkia taldearen "Ernesto izatearen garrantzia" antzezlanarekin Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.

PINTURA ERAKUSKETA

Ekainaren 18tik uztailaren 2a arte San Juan pintura lehiketaren erakusketa Monterronen. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

EHIZA ETA ARRANTZAKO ZOZKETA

Euskadiko Ehiza eta Arrantza Federazioak ateratako erriaren zerbaki sariduna hauxe da: 77835.

MARRAZKI ETA GRABATUEN ERAKUSKETA

Ekainaren 16tik uztailaren 2ra arte Benito Zumalderen marrazki eta grabatuen erakusketa Harresi aretoan. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

ORTZADAR ATSEDEN TALDEA

Aretxabaletako Ortzadar Atsedeen taldeak udaleku irekiak egingo ditu uztailaren udalekuak antolatuzko jendea behar du, Interesatuok ekainaren 16ra arte Ortzadarreko lokaletik pasa zaitezke arratsaldeko 5.30etatik 8etara edota 79 01 84 telefono zenbakira dei egin.

UDAKO KIROL IHAR-DUERAK

Aretxabaletako Udako Kultur Batzordeak udako kirol iharduerak antolatu ditu. Antolatutako ikastaroen artean Piraguismoa, eskalada, igeriketa, espeleologia, tenisa eta badmingtona daude. Iharduerak uztailaren izango dira bi txandatan banatuta: lehengo uztailaren 3tik 14ra eta bigarrena 17tik 28ra. Izenematea ekainaren 12tik 23a bitartean egin ahal izango da Kultur Etxean. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultur Etxera jo edo deitu 79 01 05 telefonora.

“Kalitatezko Carmina Burana

Jendeak goraino bete zuen atzo Victoria Eugenia antzokia... Orff-en Carmina Burana, kontzertuko zatirik garrantzitsuena izan zen. Hitz gutxitan esateko, musiko guztiek goi-mailako lana eskaini zuten. Hasteko, bereziki ona izan zen Arrasateko abesbatzaren lana. Taldea, denbora guztian, ondo baino hobeto egon zen, zuzena une bakoitzean, eta adierazgarria batez ere. Ahozkatze argia eta koordinazioa nabarmendu ziren.

Orkestrak ere erakutsi zuen bere maila, bikain entzun zen eta denbora guztian, abesbatza bezala, oso ondo orekatua egon zen. Noski, Jesus Maria Etxeberria gaztearen batutak zerikusi handia izan zuen. Zuzendaria oso fin ibili zen, sarrera eta bukaera benetan ederrak erakutsiz. Bakarleriak espresibitatez gainezka egon ziren, baritonoa gehienbat, nahiz eta indar apur bat falta izan zitzaion. Sopranoak eta kontratenoreak txalotzeko lana egin zuten, maila handiko Carmina Burana bat lortu arte.

Maria Jose Cano, maiatzak 31. **EL DIARIO VASCO**

“Kerosenozko berogailu haiekin hasi zenetik, Arrasateko kooperatiba munduak jauzi galanta egin du. Gaur egun, MCC bihurtuta, Euskal Herriko ekonomi talde garrantzitsuena bilakatu da eta, burtsa munduan murgilduta, beste jauzi handia egitea erabaki du”.

1995eko ekainak 4.

ARGIA


“Europako herrialde garatuenekin konparatuta, Alemania eta Holanda esate batera, Goierrin bezala Sasieta mankomunitateari esker, europear mailan gaude. Gipuzkoarrok sentsibilitate berezia dugu ingurunearekiko”.

Ignacio Jimeno, 1995eko ekainak 7.

DEIA

Zergatik intsumisioaren eguna?

Azken urteotan asko izan dira Arrasaten intsumisio egin direnak eta joera horri euste edo joera hori areagotzea da intsumisio egunaren helburu nagusia. Intsumisioak elkar-tu eta intsumisioaren alde dauden guztien elkartasuna jasotzea oso garrantzitsua da soldadutzari uko egite hutsagatik epaizten dituztenentzat. Bestela izango balitz eta bakarrik sentituko balitz agian ez bait litzateke bide hori hartzera ausartu ere egingo. Intsumituei elkartasuna adierazteaz gain, herrian



Aner Arregi

Intsumisio asanbladakoa

hauen egoeraren berri ematea ere hor dago, horrelako ekintzak egingo ez balira azkar ahaztuko bailitzateke arazoa. Baina dudarik gabe helbururik garrantzitsuena ONDO PASETIE izango da. Aipatu behar da Arrasaten dagoeneko 200 pertsona inguru direla intsumisio egin diren edo egiteko bidean daudenak. Zoritxarrez gero larunbatekoa bezalako egunak antolatzeraz etortzen direnak ez dira horrenbeste izaten eta nahikoa lan izan dugu eguneko ekintza denak, bildutakoan artean banatzen. Oraindik ere badago aukera lagundu nahi izan ezkerer bai Gaztetxeko barran egoteko edo baita gainerako mobidetan esku bat botatzeko ere. Gaueko kontzertua egiteko dudak egon ginen nahiko garestia ateratzen zelako, baina azkenean aurrera jotzea erabaki dugu merezi duelakoan. Ahalik eta jende gehien bildu nahi dugu Def Con Dos en kontzertuan.

Bidaiariok adi !!!

**4 HIZLARI
OPORRETARA
JOAN AURRETIK
JAKITEKOAK KONTATZEN.**

Eguna:


Ekainaren 12an.

Ordua:

Arratsaldeko 7etan.

Tokia:

Monterron.



**Erabakitzen eta hobeto
ibiltzen laguntzeko**

Hizlariak:

Aniceto Mardás (brigadista).

Danel Goikolea (auzolandegiak).

Jon Etxebarri (Ibiltari agentziakoa).

Arantxa Arregi (Euskadiko Kutxako langilea)

Lau hizlari eta elkarrizketak ematen duena.



Jende asko Elkarriren hitzaldian

Pleno aretoa bete egin zen ostegunean Jonan Fernandezek hitzak entzutera hurbildu ziren lagunekin. Elkarriko koordinatzaileak, "Bakera-ko Borondateen Kontrata" izeneko kanpaina berria zertan datzan azaldu zuen. Bake konferentziaren ingurukoak eta Ipar Amerikan egin dituzten harremanen berri ere eman zuen Fernandezek.

Agur atzeratuen asteari

Domekan bukaera eman zitzaion aurtengo atzeratuen asteari. Ondo amaitzeko, zapatuan kontzertu bikaina eskaini zuten Arrasate Musikaleko ikasleek eta igandean, atzeratuak izan ziren protagonista. Alkartun bazkaldu ondoren, atzeratuak, familiar-tekoak eta antolatzaileak Monterrone-ra hurbildu ziren jolasetan parte hartzeko. Bukaeran sariak eman zieten atzeratuei.

Lapurra Ibarretagain baserrian

Astelehen arratsaldean, Ignacio Eras gaztea Uribarriko Ibarretagain baserrian sartu zen. Baserrian zeuden bi ahizpak norbait zebilela konturatu eta ikustean harrapatzen saiatu ziren.



J. Salaberriren errautsak zabaldu

Jon Salaberriren lagun eta familiar-tekoak Leintz Gaztagara joan ziren igandean, Jonen errautsak zabaltzeko. Jonek hala eskatuta, kutsatu gabeko errekatxo batera bota zituzten errautsak eta ondoren, zuhaitz bat landatu zuten ondoan. Geratzen diren errautsak itsasoan, Saran eta mendian botako dituzte. Asteburuan Bermeora joango dira, errautsak San Juan de Gaztelugatxetik itsasora botatzeko.

Gazteak eraso egin zien Carmen eta Nieves Abarategiri, lehenari kolpeka eta bigarrenari aginka. Jarraian gizon bat etorri eta lapurra menderatu zuen. Lapurra, 28 urtekoa eta San Juan Ospitaleko gaisoa, lotuta eduki zuen erantzaintza agertu arte. Bi ahizpak Eskualdeko Ospitalera eraman zituzten zauriak sendatzera; gaztea, berriz, ospitale psikiatrikora.

Maxian 9 milioi lapurtu

Asteburuan 9 milioi pezeta lapurtu zituzten Arrasateko Maxi Eroskin.

Ez dago ziur lapurreta noiz gertatu zen, igande gauean jakin zuten eta lapurketaren berri. Lapurrak atzeko partetik sartu ziren, teiltuan zulo bat eginez. Behin barruan, bulegoko horma zulatu eta ondoren bertan zegoen diru kutxan beste zulo bat eginez, dirua lapurtu zuten. Ekintza "Sopletearen banda" taldeari leporatzen dio Ertzantzak.

400 lagun bidegorriaren martxan

Adin desberdineko 400 lagun bildu ziren zapatuan, oinezko eta txirrindularien-

dako bidegorria egin dadin eskatzeko. "Bidegorria eraiki" lempean abiatu ziren Oñatira parte hartzaileak eta ordubata aldera Arrasatera bueltatu ziren. Besteak beste, Asier Guenetxea, txirrindulari profesionala eta Inurrategi anaiak izan ziren Lurrats elkarteak antolatutako ekintzan. Parte hartzea handia eta zabala izan zenez, antolatzaileek ekintzari buruzko balorazio positiboa egin zuten.

Zaharren astea

Arrasateko zaharrek hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izan dute astean zehar, eurendako antolatutako astean.

JAIOTZAK

- Lorea Etxagibel Martinez de Marigorta. Maiatzaren 24an.

EZKONTZAK

- Juan Manuel Davila Ortiz & Antonia Davila Baquero. Maiatzaren 27an. Elizaz.
- Imanol Ibarra Aranzeta & Maria Catalina Gallardo Bolaños. Ekainaren 3an. Elizaz.
- Ignacio Arizmendiarieta Mondragon & Jaione Rodriguez Leibar. 3an. Elizaz.
- Miguel Angel Narbaiza Barrena & Saioa Moreno Balanzategi. 3an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Josefa Gorosabel Etxagibel. Maiatzaren 28an. 86 urte.
- Godolena Luz Alonso Gonzalez. 28an. 82 urte.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak


Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

FELIPE MADINA
ZURAK
 Zarugalde, 40 ARRASATE
 Tfnoa: 79 13 78

IBARRA
Garajea S.L.

EBRO NISSAN
 Garajea
 Automobil-konponketa
 Garabi zerbitzua

beatriz
 oinetakoak eta poltsak
 Erdiko kale, 11
 Tfnoa: 79 14 33
 ARRASATE



* Eugenio Iturriotz

Tabakotik ahalik eta urrunen bizi

Tabakismoa errotuta dago gure gizartean. Euskal Autonomi Elkartearen gizezkoen %40a da erretzailea eta emakumezkoen %22a, baina azken urteetan emakumeen artean gora egin du erretzeko ohi-turak.

Nahiz eta denok jakin tabakoak kalte egiten diola gure gorputzari, gure osasunari, erretzen jarraitzen dugu minbizia edo bihotzeko abusu bat izan artean. Orduan hasten dira komeriak baina zoritxarrez askotan beranduegi.

Tabakismoa, gaur egun, aurrez ikus daitekeen heriotza goiztiarren faktoreen artean garrantzitsua da. Gainera pertsonaren eta gizartearen borondatez tabakoaren eragin kaltegarri hori baztertea posible da.

Tabakismoa kontrolatze-ko egiten diren iharduerak era

askotakoak dira:

1.- Tabakoaren kontrako kanpainak: tabakoak osasunarentzat dituen ondorio kaltegarriak (minbizia, infartoa eta...) azpimarratzen dituzte.

2.- Neurri legislatiboak: Mendebaldeko herririk gehienetan legeak agertu dira tabakoaren kontsumoa leku publikoetan debekatzeko baita adin txikikoei salmenta edota tabakoari buruzko publizitatea egiten ere.

3.- Erretzeari uzteko metodoak: gero eta gehiago

.....
"... uzteko, tabakoa erretzeko ohitura kentzeko, motibazioa da garrantzitsua"

dira erretzeari uzteko asmo-tan dauden erretzaileak eta honek "sasi" metodo bat baino gehiago sortarazi du. Tabakoari utzi nahi izatetik lortzera dagoen bidea nola egin? zer metodo erabili?

Hasteko esan behar da tabakoa droga bat dela eta dependentsia sortzen duela. Droga guztiekin gertatzen den moduan, uzteko, tabakoa erretzeko ohitura kentzeko motibazioa da garrantzitsua. Motibazioarekin batera nikotinazko partxeak edo txikleak hartzea lagungarria izan daiteke, abstinentziaren sintomak gutxitzeko. Batzuetan tratamendu psikologikoa ere egiten da.

Tabakismoak, drogo-menpekotasun egoera bat izanik, beste drogo menpekotasunen adineko laguntza eskatzen du. Gaur egun ez Osakidetzan ezta Lagun Aron ere, ez dago erretzaileei laguntzeko plan orokor bat. Ez litzateke hobe izango bide hau jorratzea eta ez hainbeste mezu ezkor eta izukor bidaltzea?

Ekainaren 31a Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna izan zen eta egun horretarako OME-k (Osasunerako Mundu Erakundeak) ondorengo mezu hau hedatu zuen: "Tabakotik ahalik eta urrunen bizi. Erretzailea izanez gero ahalik eta lasterren utzi eta sekula ere, ez erre erretzaile ez direnen aurrean".

*SENDAGILEA

USTEAK USTE

EGUNKARIA JAIA

San Juan jaiak gero eta gertuago badira ere, badaukagu igande honetan zerekin prestatzen hasi, Euskaldunon Egunkariak izugarritzko jaiak iragarri baitu.

Eta izan ere badu zer ospatu, sasi jakintsuen auresan guztien aurka aurrera atera delako, bere sustraiak ondo erroturik dauzkalarik herrian eta gainontzeko komunikabideek dauzkatenekin alderatuz, hain baliabide urriak izanik produktu duin bat eskeintzen digulako. Eta hau horrela bada sortzaileek euren fedea eta ilusioa transmititzen jakin izan zutelako eta euskaldunok proiektu baten inguruan bat egiten jakin izan genuelako da, makinatxo bat traba eta oztopo gainditu behar izan zirelarik.

Dena dela euskaldunok beti izan dugu saiatsu fama, eta Euskaldunon Egunkaria (baldintzak kontuan hartuta) aurrera ateratzeak ondo merezitako fama dela adierazten digu. Ez dakit aldiz, jaiak antolatzen hain famatuak garen edo ez, baina garbi dago horretan ere adituak garela. Igandean Arrasaten burutuko den jaiak horrela adieraziko du, ea gauza garen ez bakarrik jaiak antolatzen baizik eta bizitzen, ez bakarrik euskera hutsean idatzitako egunkaria argitaratzen baizik eta irakurtzen eta batez ere, dakigunok behintzat, hitzegiten.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

MILARIOX
Taberna-jatetxea
Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 beheka Tfnoa: 77 01 69

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrieras, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Maskarada antzerki taldeak aurkezten du:



Ernesto izatearen garrantzia

(Oscar Wilde)

Amaia Antzokia
Ekainak, 16 ostirala
Gaueko 10.30etan
Sarrera: 700 pta.
(Gazte Txartelarekin: 500)



Arrasateko Udala
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Irudi berria estreinatuko du Udalak

Argazkian ageri den sinbolo berria erabiliko du Udalak hemendik aurrera, berarekin zerikusia duten tokiak edo gauzak identifikatzeko. Logotipo berriak zaharrear agertzen diren elementuak ditu baina garbiago eta era modernoagoan. Irudi berria diseinatu lehen urratsa bete da. Orain, ikurra kolorez joango den kasuetan zein kolore erabili zehaztu eta toki desberdinetan irudi berria zelan erabili finkatu beharko da.

Jendeak askotan Udalaren ardurapean dauden zerbitzuak zeintzuk diren ez dakielako erabaki zen irudi berria egitea. Era horretan Iturbide Egoitzak, AUKE-Ako erakunde autono-



ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Donostiako Network enpresak egin du Udalaren logotipo berria.

moe, Udal Euskaltegiak, Monterron Kultur Etxeak, Gazte Zerbitzuak eta Udako Ingurugiro Eskolak irudi hori erabiliko dute aurrerantzean eta horrela jendeak Udalarekin identifikatuko dituela espero da.

Hiru milioiko aurrekontuaz, Donostiako Network irudi eta komunikazio enpresa izan da irudi berria egin duena. Logotipo berria astelehenean aurkeztu zen udal plenoan eta lehengoak ez dela alde batera utziko

adierazi zen. Kasu batzuetan, ikur zaharra erabiliko ei da. Kasualitatez gainera, hemendik gutxira zinegotzi talde berriak hartuko du Udalaren gidaritzza, eta bide batez logotipo berria erabiltzen hasiko dira.

AG AMAGARAN oraindik denboraz zaude!

Promozio baliogarria ekainaren 16ra arte

TERMOTESTER



Zelulitiaren prebentziorako kanpaina



Irudi uniforme

Leopardo azalaren irudia



Ederrago senti zaitez




Gorputzaren tratamendu guztietan %10aren beherapena.

AMAGARA

Estetika Zentruko gorputzerako programa berriekin.

Erdiko Kale, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 09 09



Egun hauetan ikaslez beteta izaten da Monterrongo liburutegia.

Inguruko 240 ikasle baino gehiagok egingo du selektibitatea

San Viator, Almen edo Arrasateko Batxilergo Institutoan ikasi duten 240 ikaslek egingo dute selektibitateko azterketa; 78 Institutokoak, 69 San Viatorrekoak eta 93 Almenekoak. UBIa orain gaintitu ez eta azterketa irailan egingo dutenak, berriz, 123 dira; 61 Institutokoak, 42 San Viatorrekoak eta 20 Almenekoak.

San Juan aurretik selektibitatea egingo dutenetatik, 167 ikaslek natur zientziak ikasi dituzte, 31k letrak eta 42k giza zientziak.

Datuak oraindik atera barik dituztela eta,

ezin jakin Eskola Politenikoko zenbat ikaslek egingo duen selektibitatea.

UBIa maiatzan gaintitu dutenek ekainaren 20an eta 21ean egingo dituzte selektibitateko azterketak. Maiatzaren bukaeran ikasurtea amaitu zuten eta ordutik, selektibitate azterketarako prestatzen ari dira. Egun urduriak pasatzen ariko dira ikasle horiek, loari makina bat ordu harrapatuta, baina behin azterketa pasata, inoiz baino opor luzeagoak izateko esperantzaz. Hori bai azterketa gaintitzen dutenek!


Emakumearen egoera sozio ekonomikoa

Asteazkenean aurkeztuko dute emakumearen egoera sozio ekonomikoari buruz egin den ikerketa. Azterketa horretan, Arrasateko emakumearen egoera, premia eta asmoak zeintzuk diren jasotzen da. Herrian ez da emakumeari buruzko azterketarik egin eta errealitatea neurtzeko datuak izatea komeni delako, erabaki zen ikerketa egitea.

Goizane Larrañaga arrasatearra arduratu da ikerketa egiteaz eta horretarako, 300 emakumeri egindako inkesten datuak erabili ditu.

Kaleak itxita

Igandean Egunkariaren Jaia ospatuko dela eta, Muxibar plazatik Maalako errotondaraino ezingo da automobileraz ibili. Ostiraletik astelehen goizera arte gainera, Ignacio Zuloaga kalean ezingo da automobileraz aparkatu eta larunbat arratsaldetik astelehen goizera arte, Otalora lizentziatuan ere ezingo da autorik utzi.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak

- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



INEMek uzten duenean ATB, Arrasate Press eta Arrasate Irratia eraikuntza honetan egongo dira.

ARKOk ospital zaharra utzi eta egoitza berria izango du

Hamaika milioiko aurrekontua du ARKOn egoitza berria egokitzeko astelehenean Udal Gobernu Batzordeak onartu zuen proiektuak. Onarpenaren ondoren, egiaztatzen da azkenik ARRASATE PRESS eta ATB, Arrasate Irratiarekin batera, Udalak Otalora kalean duen egoitzara joango direla. Onartutako proiektuaren arabera, ATBk gaur egun INEMek betetzen duen tokia hartuko du; Arrasate Press eta Arrasate Irratiak, berriz, eraikuntza berdineko lehen solairua beteko lukete.


Aipatutako proiektua onartzeko eztabaida ugari egon ei zen Gobernu Batzordean. Izan ere, INEM-ekoen gain, dantzariak eta trikitilariak erabiltzen dute gaur egun Otalora kaleko eraikuntza, eta momentuz ez zaie beste lokalik eskaini. Beste arazo bat ere badago, baina denborak konpon dezakeena, INEM-eko egoitza berriaren obrak darman geldotasuna, ez dirudi eta epe laburrean amaituko denik Geltoki Zaharra lan-bulego bihurtzeko obra.

Udalak hartutako erabakiaren ondoren eta behin Otalorako eraikuntza egokituta, hiru herri-komunikabideek elkarren ondoan lan egiteko aukera izango dute.

ARKO premian

Egoitzaren gaia alde batera, ARKOk emango du zeresanik aurrerantzean. Kultur talde guztientzat aurtengo Udal aurrekontuetan egon den murrizketak arazo latzak ekarri baditu, bereziki eragin du egunero-ko lan-dinamika duen ARKOrengan, telebista eta aldizkariaren oinarritzko funtzionamendu gastuak estaltzera ere ez da iristen eta.

Premiazko egoera horren aurrean eta produktuen irautea ziurtatzeko ARKO beste diru-iturri batzuk jorratu beharraz jabetu da. Horrela, aurtengo San Juanetan, jaietako egunero-ko orrialde berezietan eta ATBko egunero-ko programa berezietan gain, AED, Txatxilipurdi eta EKINekin batera txozna jarri eta hainbat zozketa egingo du.



UGTk egoitza inauguratu

Gaur arratsaldean, UGTren egoitza berria inauguratu behar zuten. Iosu Frade, UGTko Euskadiko idazkari nagusia eta Cándido Méndez, Estatuko idazkaria ziren etortzekoak gaurko ekitaldira.

Egoitza berria Garibai kaleko 6. zenbakian dago eta 150 m² ditu.

Eudel eta Arcefafe-n akordioa

Eudelek eta Arcefafe, Udaletxeko langileen negoziatorako mahaiak akordioa lortu dute. Horren arabera, langileen soldata %3,5 igoko da, urtean 2 lanordu gutxiago izango dute eta ordain sariez gain, 25.000 pezetako plusa edukiko dute. Udal plenoak neurri horiek onartu zituen astelehenean.

“Bodegas” intsumisioa atxilotu

Jon Gomez, “Bodegas” ezizenez ezaguna den gazte intsumisioa atxilotu zuen Ertzantzak asteazken arratsaldean, Ekaitz tabernan lanean ari zela. Tabernan izan zen lapurreta zela eta, Ertzaindegira joatea eskatu zioten eta behin han atxilotu egin zuten intsumisioa. Ondoren, Martutenera eraman zuten. Protesta gisa manifestazioa egitekoa zen atzo ostegunetan.

ARRASATE KANTARI

**Amaia antzokia, ekainak 10
Gaueko 10'30etan**

Antolatzaileak:

AEDko kultur eta Gazte sailak, ARKO Elkarte, Arrasate Musikal, Goikobalu Abesbatza, San Franbtzisko Xabier Ikastola, San Viator Ikastola, S.U.D.C., Trikitixa Eskola, Txatxilipurdi



Famili eta Gizarte Hezketarako zentruko 35 emakume Galiziara joan ziren bost egunetarako. Eguraldi bikaina izan zuten eta horri esker Galiziako toki asko bisitatu zituzten. Hitz batez esateko ederto pasa zuten, hor dituzue Santiago Katedralaren aurrean.

IZEN PROPIOAK

● **Edorta Arana** 35 urteko arrasatearrak
 “Gizarte eta nazio errepresentazioa telebista-albistegietan” tesia aurkeztu zuen Leioako unibertsitatean eta aho batez epaimahaiak Cum-laude-a eman zion. Beraz, lehen Leioako unibertsitateko irakasle zena orain doktore bihurtu da.

lbaia Artek antolatuta patinatzaile ugari elkartu zen eta patinen gainean ibiltzea

zer den badakitela erakutsi zuten. Saltoak, abiadura frogara; denetik ikusteko aukera egon zen, eta tartean zartada batzuk ere bai.

Baina tira azkar zutitu ziren lurretik. Ikasteko gainera lurrean bueltatxo batzuk ematea ez da txarto egoten.



● **Jesus Perez Usabiaga** 28 urteko arrasatearra Urbina Maltzaga saskibaloi taldeko gerente berria da. **Jose Angel Samaniego** talde berdineko entrenatzailea izango da. Jose Angel donostiarra da eta Txus Brizuela ordezkaturiko du.

● **Idurre Amosarrain** Mendizabalek Urruzuno literatur lehiaketan poesia ataleko lehen saria irabazi du. Idurre arrasatearra da eta Institutoko lehen mailan ikasten ari da.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



ZARRAOA

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Josu Barandiaran eta M^o Carmen Arrieta eskoriatzarrak apirilaren 22an ezkondu ziren. Bazkaria Etxeberri jatetxean izan zuten eta ezkon-bidaian Venezuelara joan ziren. Zorionak bikote!

Epelde



Pianoaren aurrean Richard Claydermanen estiloa izan arren, Agustin Laso da. Agustin pianoa ikasten dabil eta eskenategiko lehen erakustaldia Carmina Burana obraren entsaioan egin zuen. Ezin ukatu estiloa duela. Urte batzuk barru beharbada argazkilaritza utzi eta pianista sartzen zaigu, batek daki!



Gasteizko IKA euskaltegiko 8 ikasle etorri ziren beraien irakaslearekin Arrasate Press eta Arrasate Telebista ikustera. Arretaz entzun zituzten azalpenak eta ikusitakoa asko gustatu zitzaieela esan ziguten. Horrelako bisitak eskertzekoak dira, Bai horixe!



Al Andalus kulturelkarateak datozen bi urterako erregina eta oho-rezko damak aukeratu zituen joan zen astelehenean kultur asteko ekintzen barruan. Aur-

tengo Erregina Olga Perez da, Leire Oreyana ordezkatzuz. Oho-rezko lehen dama Naiara Conde eta bigarrena Ana Belen Hernandez. Zorionak hirurei!

Uribe auzoako sailkapenak

A Taldea

Munar Txiki	16
Exca Lete	16
Berza Mutante II....	16
Leya	15

B Taldea

Jotakabau	17
Tronkoteak	16
Arrasate Kirolak	16
Blacburn.....	14

D Taldea

Uglys Txinato	17
Equs BTR.....	16
Los Dimy	15
Arrasate Zoo	13

E Taldea

Hirei.....	15
Dribling.....	15
Kamasutra.....	14
Borrock Roll Prom.	14

F Taldea

Salenco y Konp.....	19
Lautherbrunnen.....	19
Gallinero.....	15
Bodega Anboto	13



ZALDIBARKO EMAITZAK

Fosforos 3 - Adelaida Haizea 5
Zuloak 3 - Cerve Leintz 2

ZALDIBARKO HURRENGOAK

Larunbata 10

Zaldibar

16.00 Fosforos - Cerveceria Leintz
17.00 Zuloak - Adelaida Haizea

Uribe auzoako hurrengoak

Larunbata 10

Iturripe A

9.00 Equs BTR - Gallinero
10.00 Munar Txiki - Arrasate Kirolak
11.00 Tronkoteak - Dribling
12.00 Lautherbrunnen - Leya

Iturripe B

9.00 Hirei - Berza Mutante II
10.00 Jotakabau - Los Dimy
11.00 Salenco y Kanpañia - Kamasutra
12.00 Uglys Txinato - Exca. Lete



BELARRIRA

◆ **Lesioa:** Zuloak taldeko Patxi jokalaria ez beharrezko jokaldi batean radioa apurtu zuen. Patxik ezingo du finala jokatu datorren zapatuan.

◆ **Final laurdenak.** Uribe Auzoa txapelketan final laurdenak datorren asteburkaeran hasiko dira. Partidu denak zapatu goizean jokatuko dituzte.

◆ **Kanpoan.** Sukar, Borrock'n Roll, La Banda eta Orkatz taldeak Uribe Auzoa txapelketatik kanpo daude. Ez ziren aurkeztu azken jardunaldian eta horregatik kanpoan geratu dira.

◆ **Golak.** Uribe Auzoa txapelketan 161 gol sartu dira 11. jardunaldian. Taldez talde A taldean 27 gol sartu dituzte, B taldean 19, D-an 44, E taldean 34 eta F taldean 37

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Fosforos eta Adelaida Haizea

Fosforosek eta Adelaida Haizeak elkarren kontra jokatu zuten zapatuan goizeko 11etan eta Adelaidak merezimendu osoz 5 eta 3 irabazi zuen. Adelaida berehala jarri zen aurretik markagailuan. Lehen zatia 3 eta 1eko emaitzaz bukatu zen Adelaidaren alde. Bigarren zatian ere Adelaida gehiago izan zen eta gol aukera arriskutsuagoak sortu zituen. Zati honetan Zurditok, Adelaidako atezainak, ate batetik bestera sartu zuen gola aipatu behar da eta era berean Alfonso jokalaria egindako lana, oso ondo ibili zen atzean. Fosforosek, berriz, ez zuen maila onik erakutsi. Txapelketa bikaina egin du baina azken bi partiduetan ez da fin ibili eta pronostiko guztien aurka finalerik kanpo geratu da.



Zuloak eta Cervecería Leintz

Zuloak eta Cervecería Leintzen arteko neurteta egon zen ikusgai eguerdiko 12etan. Partiduak hiru zati izan zituen. Lehen zatia guztiz aspergarria izan zen, ez golik ezta aukerarik ere, hutsnako berdinketaz amaitu zen. Bigarren zatian Cervecerías Leintzekoek bi gol sartu zituzten jarraian. Zuloakek penaltiz lehen gola jarri zuen markagailuan eta bukatzeko 2 minutu falta zirenean Fernandok berdinketaren gola lortu zuen. Berdinketa hauseko luzapen minutuak jokatu ziren. Luzapenean Zuloakek zorte gehiago izan zuen, Guridi area batetik bestera atera eta Cerveceríako atezainak urrundu guran baloia ikutu eta barrura sartu zuen. Gol erabakiorra Zuloak taldearentzat. Cervecería Leintzeko atezainak bere atean gola sartu arren, partiduan bikain ibili zela esan behar da.

Finalera...



Adelaida Haizea

Finalera...



Zuloak

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Zaldibar txapelketako sariak


Txapeldunak: garaikurra, datorren urterako arropa eta afaria.

Txapeldun-ordeak: garaikurra eta afaria.

3.ak: garaikurra eta urdaiazpikoa.

4.ak: garaikurra.

Finaleko jokalaririk onenak: garaikurra.



Beste sari batzuk:

Talde nabarmenena: Perrahotsa (Urdaiazpikoa)

Jokalari nabarmenak garaikurra jasoko dute:

Enrike Urribarren- MSM taldea

Raul Astondoa- Ke Ostias taldea

Jabi Garcia- Petroleros

Joseba Onsoño- Bukanak

Alberto de la Maza- Suministros Ugarte.

Lehen faseko azken lau sailkatuei Urdaiazpiko bana:

Arrasate Zoo

Strauss

Txoko Taberna

Teodolito

Plaka Oroigarria:

Iñigo Ugarteren senitar-tekoek jasoko dute. Iñigo Uglys Txinato taldeko jokalaria ezbeharrezko auto istripu batean hil egin zen.



LURRATS Elkartea oinezko eta bizikletazaleen interesak defendatzeko sortu da. Zu ere LURRATSeko bazkide izan edo informazioa jaso nahi baduzu, bidali azpiko fitxa zuzenbide honetara (LURRATS Elkartea, Garibai Etorbidea, 3 behea. - 20.500 Arrasate)

Izen-Abizenak.....

Helbidea

Herria.....

Tfnoa

Deba Bailara:

Herri aldizkarien paradisua

Joxe Aranzabal

Gatzagan hasi eta itsasoraino, Deba ibaiak bustitzen dituen lurretan euskaraz idatzitako bederatzi herri aldizkari sortu dira azken zazpi urte hauetan. Denen artean 128 milioi pta baino gehiagoko aurrekontua dute. 82.500 lagunek irakurtzen dituzte 14 kazetari profesionalek eta laguntzaile pilo batek idatzitakoak. Euskal Herrian ez dago parekorik.



**Deba bailarako
euskarazko
herri aldizkarien
fitxa teknikoak**



	Aretxagazeta	Arrasate Press	Barren
Aldizkaria	Aretxagazeta	Arrasate Press	Barren
Sortze urtea	1989	1988	1992
Argitaratzailea	Aretxagazeta elkarte	Arko	Elgoibarko Izarra
Zuzendaria	Josu Urkia	Beñardo Kortabarria	Ainhoa Lodoso
Langileak	1	3	4
95eko aurrekontuak	5.000.000 pta	39.176.000 pta	25.000.000 pta
Ordenadorea	Macintosh	Macintosh	Macintosh
Telefonoa	79 01 05	77 09 40	74 41 12


Bide eskasak ditu Deba bailarak. Masa komunikabi-deei dagokienez, ostera, sekulako aurrerapausoak eman ditu azken zazpi urteotan. Izan ere, Eskoriatzak, Soraluzek eta Debak izan ezik, gainerako herriek, bederatzik, beren aldizkariak dituzte. Euskara hutsean idatzitako herri aldizkariak.

DEBA GARAIAIN

1988ko abenduaren 2an ARRASATE PRESS agertu zenetik, zazpi herri aldizkari sortu dira Deba Garaian. Hasiera hartan eta 1990era arte, ARRASATE PRESS bera bilakatu zen eskualdeko aldizkaria. Izan ere, lehen bi urte haietan Arrasatez gain, Bergaran (784 ale), Aretxabetan (504 ale), Oñatin (191 ale), Eskoriatzan (161 ale) eta Armaionere (133 ale) zabaltzen baitzen. Poliki-poliki, gainerako herrietako aldizkariak sortu edo indartu ziren neurrian, ARRASATE PRESS bere sorterrira itzuli zen.

Tartean hainbat aldaketa izan da. *Aretxagazeta* hiru hilabetekaria izatetik hamabostean behin argitaratzera pasatu da. Oñatiko *Kontzejupetik*, berriz, noizbehinkaria izatetik hilabetekari sendoa izatera igaro da. Zori-

Denen artean 128 milioi ptako aurrekontua dute
Deba bailarako aldizkariaren aurrekontua 95erako (pta)



Joxe Aranzabal

txarrez, ahalegin ustelik ere izan da: Eskoriatzako *Zer Barri?* bihilabetekariak bost zenbaki baino ez zituen argitaratu 1991 eta 1992 urteen artean. Berriena Elgetako *Goibekokale* dugu, aurtien sortua.

DEBA BEHEAN

Eibarko *...eta kitto!* aldizkariak hainbat aldaketa izan ditu sortu zenetik. Hilabetekaria zenean egunkari formatoa zuen. Ondoren hamaboskaria bihurtu zen, baina aldizkari itxurarekin. Orain dela urtebete astekaria bila-

Aldizkari berriena
Goibekokale da,
Elgetako Gazte
Asanbladak
sortua

katu zen. Elgoibarko *Barrenek* astekari moduan ekin zion lanari eta bere horretan dirau, lehen baino finkoago eta koadernilo berezietz hornitua. Bai edukietan eta bai

marketingari dagokionez, elgoibartarrek hainbat berrikuntza ekarri dituzte.

EUSKARA TALDEEN
MAGALEAN

Hauetako aldizkari gehienak herrietako euskara taldeen babesean sortu ziren. ARRASATE PRESS AEDtik; *Berrigara* Jardunetik; *Aretxagazeta* Behinketik; *...eta kitto!* Eibar-ko Euskara batzordetik eta *Barren* Elgoibarko Izarra elkartetik. Geroztik komunikabideez arduratzen diren talde bereziak sortu dira: Arrasate Komunikabideak, *Aretxagazeta* elkarte eta *...eta kitto!* euskara elkarte, esate baterako. 1992an hasi zuen aro berrian *Kontzejupetik* udal aldizkari oñatiarrak ere Laxan euskara taldearen babesa eta elkarlana lortu zituen. Elgetako *Goibekokale* eredu hauetatik kanpo geratzen da, Elgetako Gazte Asanbladak sortu du eta.

EZAUGARRI
AMANKOMUNAK

Deba bailaran argitaratzen diren herri aldizkariok euskarazko herri prentsa berriaren ezaugarriak dituzte: euskara batuan idazten dira, tokian tokiko euskalkiaren ikutu zenbaitekin; doan bana-



Berrigara

1990
Jardun
Eneko Azkarate
4
25.200.000 pta
Macintosh
76 03 97



...eta kitto!

1989
...eta kitto! elkarte
F. Muniozguren
1
20.000.000 pta
Macintosh
10 67 76



Goibekokale

1995
Gazte Asanblada
Ana Gillegi
ez
2.500.000 pta
Macintosh
76 80 77



Irinmodo

1988
Kultur Taldea
Iñigo Ramirez
ez
500.000 pta
ez
76 60 61

tzen dira etxeetan; publizitatearekin eta herri erakundeen diru-laguntzei esker finantzatzen dira; gehienek — *Urlatik*, *Irinmodo* eta *Goibekokale* txikiek izan ezik— egitura profesionalizatua dute eta ordenadoreen laguntzarekin (gehienez Macintosh sistema operatiboa erabiliz) egiten dira. Aurrekontu apalenak dituztenek inprimategien eskuetan uzten dituzte make-tazio lanak.

HELDUTASUNA

Euskal Herriko beste zenbait bailaratan eskualde aldizkariak loratu diren moduan — *Tipi-ttapa* Bortzirietan eta Baztanen edo *Goierriarra* Goierriin, kasu — Deba bailaran herri bakoitzak ia, berea sortu du. Nolabaiteko tradizioa sortzen ari da, gainera. Dagoeneko lau astekarik — ARRASATE PRESS, *Berrigara*, *...eta kitto!* eta *Barrenek*— 100. zenbakia gainditu dute. *Berrigara* laster iritsiko da 200.era eta *Arrasate Pressek* hurbil du 300.a. Aldizkari guztien artean 128 milioi ptako aurrekontua dute 1995rako eta Euskal Herriko produktiorik altuena: hilean 2.660.000 orrialde argitaratzen dituzte, euskarazko herri prentsaren produkzioaren


82.500 lagunek irakurtzen dituzte euskarazko herri aldizkariak bailaran

Zazpi urte eta gero, euskarazko herri prentsa inon ez bezala errotu da Deba bailaran (125.000 bizilagun). Eskoriatzan, Soraluzen eta Deban izan ezik, 14 kazetari profesional lanean dituzten 9 aldizkari sortu dira bailarako beste horrenbeste herritan. Batzuek kontuan hartzeko aurrekontuak dituzte. Besteak, apalenak, ahal duten moduan konpontzen dira, kemen handiz. Denen artean 2.660.000 orrialde argitaratzen dituzte hilean. Hurrengo pausoa bailarako egunkaria izango ote da?

► **Deba bailarako aldizkariak, herriz herri**

Aldizkaria	Herria	Maiztasuna	Orriak	Tirada
Aretxagazeta	Aretxabal.	Hamaboskaria	20	2.500
Arrasate Press	Arrasate	Astekaria	36	5.800
Barren	Elgoibar	Astekaria	32	3.500
Berrigara	Bergara	Astekaria	32	3.900
...eta kitto!	Eibar	Astekaria	20	6.400
Goibekokale	Elgeta	Hilabetekaria	16	400
Irinmodo	Antzuola	Urtekaria	52	1.000
Kontzejupetik	Oñati	Hilabetekaria	48	3.800
Urlatik	Gatzaga	Hilabetekaria	4	200

► **100. zenbakia gainditu dutenak**



► **Denen artean hilerio 2.660.000 orrialde**




laurdena, alegia. Ez da, ez, azaren azpiko orria. Aldizkari hauek Deba bailaran euskararentzat irabazi dituzten 82.500 irakurleak ez diren bezala.

ETORKIZUNA

Zazpi urte nahikoak izan dira lortutakoa erdiesteko. Aldi horretan eman diren aldaketak onerako izan dira. Oso maiztasun urria zuten hainbat aldizkari, maiztasun handiagoa irabazi duten neurrian, eraginkorragoak bilakatu dira. Hori da *Kontzejupetik*, *Aretxagazeta* eta *...eta kitto!* ren kasua. Formatoari dagokionez, Din-A4 deritzona da nagusi gaur egun. Hau dela eta, astekarien artean errazagoa da zenbait koadernilo elkarlanean ateratzea. Kolora ere sartu da aldizkari gehienetan: azaletan kuatrikoma eta barne orrietan bi kolorekoak.

Baina etorkizunean, zer? Egiturak eta diru-iturriak finkatu nahi dituzte, elkarlana sendotu eta erronka berriei aurre egin. Zer erronka, baina? “Deba bailarako egunkaria”, esaten zuen Fernando Muniozguren *...eta kitto!* ko arduradun eibartarrak bere aldizkariak 100. zenbakia bete zuenean. Zergatik ez?



Kontzejupetik
1988
Oñatiko Udala
Iñigo Arregi
1
9.500.000 pta
ez
71 61 11




Urlatik
1993
Pagedar elkarte
Koldo Azkoitia
ez
91.000 pta
ez
79 30 90

Joxe Aranzabal

Gimnasia erritmikako erakustaldia Arrasaten

Arrasateko gimnasia erritmikako neskek Gipuzkoako Eskola arteko Txapelketan hartu zuten parte Soraluze eta Eibarren. Jubeniletan Elena Lanuzak lehen postua eskuratu zuen, Gipuzkoako txapeldun bihurtuz. Benjaminetan Idurre Garcia 5. postuan geratu zen eta aldi berean Euskadiko Txapelketarako sailkapena. Alebinetan Miren Bragada 6.a izan zen. Infantiletan Maite Albez 3. tokian sailkatu zen Euskadiko Txapelketarako txartela lortuz eta Esther Fernandez 6. Kadete mailan Naiara Saenzek irabazi zuen, Sheila Sanchez bigarren geratu zen eta Idoia Fernandez hirugarren, hirurak Euskadiko Txapelketarako sailkapena lortuz. Infantiletan Izaskun Iglesias 3a izan zen. Eskola arteko Euskadiko txapelketa joan zen zapatuan jokatu zen Gasteizen eta Arrasateko ordezkarietatik



Gimnastak Ikasturtean ikasitakoa erakutsi beharko dute domekan

infantiletan Maite Albezek 2. postua lortu zuen eta jubeniletan Elena Lanuzak lehena. Elena, beraz, eskola arteko Euskadiko txapelketa irabazi du eta baita Gipuzkoako ere.

Datorren zapatuan Eskola arteko Euskadiko txapelketa jokatu da infantil A eta alebinetan Durangon eta Izaskun Iglesias infantil A mailan Arrasateko ordezkari

ri bakarria izango da. Izaskunek pilotaz, uztaiatz eta mazaz egingo ditu ariketak. Domekan, bestalde, ikasturte bukaerako erakustaldia eskeiniko dute Arrasate gimnasia taldeko neskek Iturripeko kiroldegian eguerdiko 12etatik aurrera. 5 urtetik 16 urte bitarteko 65 neska izango dira eta tresna desberdinez zein lurreko ariketak egingo dituzte.

Urbina Maltzaga saskibaloit taldea.

Urbina Maltzaga saskibaloit taldea hurrengo denboraldia prestatzen ari da. Arrasate taldeko entrenatzaileek ikastaroa izango dute ostiraletik domekara arte Basconia Taugreseko entrenatzaileekin batera. ACBko jokalaria izan zen Josep Maria Margallek emango du alde teknikoari buruzko ikastaroa Gazteizko IVEFeko instalakuntzetan. Roberto Azkarate, Esteban Otadui, Juan Carlos Davila, Lander Errasti, Eloy Rivas, Josu Bakero eta Jose Ramon Gamarra entrenatzaileek hartuko dute parte Arrasateko taldearen alde-tik.

Ur jaia Igerilekuan

Ur jaia egingo da Arrasateko igerilekuan ostiralean eguerdiko 12etan hasi eta zapatuko eguerdiko 12etan bukatzeko. Jendeak dohainik parte hartu ahal izango du ekintzetan eta erakusketak ere izango dira. Honetaz gain, "Igeriketa 24" orduen bigarren edizioa burutzeko kale bat jarriko da igerilekuan.

Lehen maila kolokan futbitokoe

Futbitoko lehen mailako denboraldiko azken partidua jokatu zuten Erandio- ren kontra zapatuan eta etxeko taldeak 5 eta 2 irabazi zuen. Arrasatek 20 punturekin 13. tokian bukatu du. Matematikoki maila galdu duela esan daiteke baina ziurtasun osoa izateko aste batzuk itxaron behar dira.

Izan ere, talde batzuk ez dute lehen mailara igotzeko asmorik eta hori gertatuz gero, Arrasateko taldeak mailari eusteko aukera izango luke.

Bestalde, etxeko futbi-



Goian: Herrero (delegatua), Elizaran, Zubia, Hierro (prestatzaile fisikoa), Zaitegi, Ritxi, Narciso (entrenatzailea)
Behean: Iñaki, Eugenio, Teri, Xabi, Nando, Guti, Jon.

to taldearen denboraldia nahiko tristea izan dela esan behar da. Jokatuak 30 partiduetatik 8 baino ez dituzte irabazi, 4 berdindu eta 18 galdu. Golei dagokienez, 94 sartu dituzte eta 128 jaso. Denboraldia bukatuta futbitokoe egun batzuk itxaron beharko dituzte datorren denboraldian non jokatu duten jakiteko. Zer egin erabakitzerakoan taldeko ardur handiena babeslea aurkitzea izango da, babeslerik ez badute nekez jarraitu ahal izango dute futbitoan eta.

Lana egin ezazu
euskararen alde!!

Udarako plana!

Auzolandegiak 95



Auzolandegiak-Karbon-Lapurdin

XALBADOR IKASTEGIAK Karbon duen ikastola konpontzen

Noiz: Uztailaren 3tik 16ra

Goizez: Ikastola honetako gurasoekin lana egingo litzateke hainbat ikasgela egokitzeko kurtsu berrirako.

Arratsaldez: Itsusiko haitzak ezagutu, Infernuko zubia, Itsaso, Hazparne, Ezpeleta eta beste inguruko herriak bisitatuko dira. Mendira, itsasora, kobatarra, herriko jaietara eta kultur ekitaldietara joango da.

Auzolandegiak Baigorri-Behenafarroan

BASAIZEA KULTUR ELKARTEAK duen egoitza haunditzea eta dantzariendako entsaiu lekuak egokitzea.

Noiz: Uztailaren 16tik uztailaren 30era.

Arratsaldez: Inguruko herriak, Baigorri, Irulegi, Banko, Donibane Garazi e.a. ezagutuko dira. Iparraldeko jendea eta giroa ezagutzeko aukera aparta.



Auzolandegiak Garaion-Araban

AEDk eta TXATXILIPURDIk duten aterpetxea konpondu, bertan zenbait obra garrantzitsu eginez.

Noiz: Abuztuaren 16tik 30era.

Arratsaldez: Mendira, kirola, igeriketa, natura eta lagun arteko aukera paregabeak. Arabako leku ederrenean dagoen txoko izkutuan, 15 egun zoragarri pasatzeko aukera denak eskaintzen dituena.



Baldintza orokorrak

- Goizez lana egingo litzateke eta arratsaldez beti jai hartuko litzateke Iparraldea eta bertako kultura ezagutzeko.
- 18 urte gutxienez izan behar dira.
- Matrikula: Euskera Elkarteetako bazkideendako 15.000 pta eta ez bazkideendako 16.000 pta.
- Aguro ibili, plaza mugatuak.
- Informazio gehiagorako edo apuntatzeko dei egin 77 12 28 telefonora.

ANTOLATZAILEA: AED Elkarte.



LAGUNTZAILEAK: Eusko Jaurlaritzza, Foru Aldundia, Arrasateko Udaletxea.

BITOR NABE

TXALAPARTA

HANKAPALONK

ANTZERKIA

ARRASATE MUSIKAL BANDA

SEBASTOPOLEKO TITIR TEROK

GOZATEGI KONTRAIRO KIXIANO

DANTZARINK BERTSO LIRIAK ARMITZ

MIKEL MARKEZ MARKOS LINDA

OSKORRI EXKIXU

EH SUKARRA

ARRASATE
17
EKAINAK

UAKA 5

Egunkaria

EUSKALDUNON

2/12

Nesken Futbito Txapelketa

Datorren zapatuan Nesken txapelketako azken partiduak jokatuko dira Ferixalekuko kantxan goizeko 9etatik ordu bata arte. Ekainaren 17an, berriz, lehenengo lau sailkatuek final erdiak jokatuko dituzte goizeko 11etan eta 12etan. Irabazleek domekan eguerdiko 12etan finala jokatuko dute eta ordu bete lehenago 3. eta 4. tokiak eraba-

kitzeko beste neurketa bat izango da. Txakolintxintxau, Las Mels, Orkatz eta Zepaesstandon taldeen artean egongo dira jokuan lau postuak. Txakolintxintxau eta Las Mels-ek txapelketa bikaina egin dute, beraz, txapelketa eskuratzeko aukera asko dira. Partiduak bukatuta ordu bata t'erdia aldera sari banaketa egingo da.



Nesken futbito txapelketan azken txanpa baino ez da falta.

Sailkapena

	Partiduak	Alde	Kontra	Puntuak
Txakolintxintxau	8	55	11	16
Las mels	8	62	13	14
Orkatz	8	40	19	12
Zepaesstandon	7	34	21	10
Joixon Bertan	7	33	30	7
Izenbakuak	6	28	17	6
Zure Atzetik	8	10	36	5
Ireklas	8	9	37	4
B.G	8	7	64	0
Karpe Diem	8	6	35	-14

Emaitzak

Karpe Diem 1 - Zepaesstandon 5
 Las Mels 7 - Zure Atzetik 0
 Ireklas 1 - Txakolintxintxau 9
 Orkatz 8 - B.G 0
 Karpe Diem 0 - Orkatz 1

Hurrengo neurketak

Ekainak 9

19.00 Izenbakuak - Zepaesstandon

Ekainak 10

9.00 Karpe Diem - B.G

10.00 Orkatz - Zepaesstandon

11.00 Izenbakuak - Las Mels

12.00 Ireklas - Zure Atzetik

13.00 Joixon Bertan - Txakolintxintxau



Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Atzerrian izandako udako abenturetaqn, batzuetan mutu gelditu zara...

UZTAILA

Ez dakizun berriz gertatu,

Egunean 2 ordu

ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA

Ikas ezazu

UDAKO IKASTAROAK

Araba Etorbidea, 4 Tfnoa: 943/ 79 01 32 79 65 54 - ARRASATE
 Olakua, 14 - Tfnoa: 71 60 00 - OÑATI

Libe Olabarrieta

“Arrasate Gida”ren egilea


24 urte ditu eta Historia eta Geografian lizentziatua da. Laister kalean izango den eta “Arrasate Gida” liburuskaren egilea da, Udaleko Euskera batzordearen ekimenez sortutako liburuska hain zuzen ere. Liburua osatzeko behar izan dituen hiru hilabete hauetan asko ikasi duela aitortzen du Libek.

— Zergatik zu “Arrasate Gida”ren egile?

— Egia esan, kasualitate hutsa izan zen ni lan honetan hastea. Arrasateko Udaleko Euskera batzordeak Arrasateri buruzko gida historiko-turistikoa ateratzea erabaki zuen eta AEDra zuzendu ziren egile baten bila. Javi Ozaetak ezagutzen ninduen eta Geografia eta Historia ikasi nuela bazekienez, ea lana egin nahi nuen galdetu zidan. Hasieran lan nekeza iruditu zitzaidan, nondik hasi ere ez nekien baina gutxinaka gutxinaka gida osatzea lortu dut. Hiru hilabetetan egindako lana izan da.

— Nola antolatu duzu?

— Gida lau zatitan banatu dut; lehenean Arrasate geografikoki kokatu dut; bigarren zatian Arrasateren historia labur labur idatzi dut, Arrasatek



oso historia astuna du eta bi orritan laburtu behar izan dut dena eta. Hirugarren zatian ibilbide antzeko bat egin dut: Santa Barbarako gaztelutik hasita erdialdera eta azkenik auzoguneetaraino. Kronologia errespetatuz egindako ibilbidea da. Azken zatian, Arrasateko ohitura batzuk bildu ditut. Gidak 28 orrialde besterik ez ditu.

— Nori zuzendutako gida da?

— Arrasatera lanera

edo bisitan datorrenari zuzenduta dagoela uste dut, baina, edozein arrasatearrek erosi edo eskuratu beharko lukeen gida da hau. Ziur nago, jendeak gida honetan agertzen diren bitxikeria eta datu asko ez dituela ezagutzen. Ni neu ere harrিতa geratu naiz gauza askorekin.

— Nondik atera dituzu datuak?

— Egia esan Arrasateri buruz gauza asko idatzi da eta nahiko informazio dago.

Liburuak irakurri eta bakoitzetik behar nuena hartu dut.

Bestalde, jendearekin ere hitzegin behar izan dut informazio gehiago jasotzeko; ohituren berri jasotzeko Bedoñako baserri batean egon nintzen eta gero, Arrasateko jendearekin ere hitzegin dut, Arrasateri buruz gauza asko dakien jendearekin, Velez de Mendizabal kasu. Parrokiari buruzko gauzak jasotzeko berriz, Jose Mari Astigarra-arekin, parrokoarekin egon nintzen.

— Anekdotikorik jaso duzu?


— Beno, anekdota asko jaso ditut, ez dakit... batek bereziki harritu ninduen eta aipatuko dizut: Doke jokua XVI. mendean Oñatiko lur batzuk Arrasatera pasatzeko apostu baten bidez sortu zela uste dute Arrasaten bizi diren gehienek. “Arrasate gure herria” liburuan hori horrela aipatzen da ere, baina gero, Jose Mari Velez de Mendizabalek esan zidan ez zela egia eta horrela ez idazteko gomen-datu zidan. Arrasatek lur zati horiek erosi zituela frogatzen zuen dokumentua erakutsi zidan.

Jende gehiena eta ni neu ere oker geundela konturatu nintzen.

AVICOLA IRAIN

Arraultza freskoen banaketa - Arraultza pasteurizatuak-Urdaitegia

Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90
Ezkió Itsaso - Antzuola



Arrasateko toponimiari buruzko liburuak itxura hau izango du.

Arrasateko toponimiari buruzko lana argitaratuko da

Duela lau urte Udalak luzatutako beka baten bidez Jose Luis Ormaetxeak, "Txipik", Arrasateko toponimiari buruz egin zuen lana, laster gutxi argitaratuko da Udalaren erabakiz. Jose Luis Ormaetxeak urtarilaren 6an aurkeztu zuen bere lanaren bigarren zatia.

"Txipik" 2000 lekuizen baino gehiago bildu du Juan Carlos Guerraren eta Jose Letonaren artxiboetan arakatu eta baserriarrei galde-tuz. Bere lana orain duen itxuraz inork ez lukeela irakurri eta, argitaratuta ikuste gustatuko litzaiokeela adierazi izan du behin baino gehiagotan: "Lana egin da dagoen moduan ez da jendeak irakurtzeko modukoa. Polita litzateke beste erabatean moldatu eta liburu bat

egitea, baina dagoen moduan, filologian dabilzanentzat interesgarria da."

"TXIPI"REN NAHIA, BETETA

"Txipi"ren nahia bete egingo da beraz. Udalak Donostiako "Concepto 10" enpresari adjudikatu dio maketazioa dagoeneko. Dena dela, maketazioa berezia izango da. Udalak, Jose Luis Ormaetxeak egindako lana Euskaltzaindiaren "Onomasticon Vasconiae" liburu bildumaren barruan sartzea erabaki du. Hori horrela izan dadin, bilduma horretako liburu guztien diseinu bera izan beharko du Arrasateri buruzko toponimia lan honek. Horretarako Euskaltzaindiak bi tekniko izendatu ditu liburuaren

diseinua eta edukia berdina izan dadin. Edukiaren zuzendari teknikoa Patxi Salaberria izango da eta diseinua-rena berriz, Enrike Mir katalana, diseinu originalaren sortzailea.

Liburuaren diseinua oso berezia dela esan behar da, Leonardo Da Vincik asmatutakoa da eta. Zenbat orrialde izango dituen ez dago jakiterik oraindik, Donostiako enpresak maketazioa egin eta gero jakin ahal izango da hori eta orduan, nork inprimatu ere erabakiko du Udalak.

1.000 liburu inguru aterako direla uste du Udalak; horietako batzuk unibertitate eta liburutegietan banatuko dira eta gainontzekoak salgai jartzeko asmoa dago. Liburuak iraila aldera kalean izango dela espero da.

LABURRAK

"Ernesto izatearen garrantzia" antzezlan

Datorren ekainaren 16ean, Oscar Wilde idazlearen "Ernesto izatearen garrantzia" antzezlan eskeiniko du Maskarada antzerki taldeak gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

Antzezlan hau duela ehun urte, 1895ean, estreinatzen zen Londresen eta mendeurren hori ospatu nahian taularatuko du antzezlan Maskarada taldeak.

Asier Hormazak, Jokin Oregik, Maite Arresek, Esther Uriak, Ane Aseginolazak, Xegundo Altolagierrek "Txetxu"k, Eneritz Artetxek eta Aitor Argotek interpretatuko dituzte obra honetako pertsonaiak. Obraren zuzendaritza eta egokitzapena, Carlos Panerak egin du.

Sarrerak 700 ptan salduko dira takilan; gazte txartelarekin 500etan.


"Negu Gorriak" gaztetxean?

Nahiz eta "in fraganti" etorri nahi, arrasatear guztien ahotan dago "Negu Gorriak" taldeak ostiralean, hilak 9an, gaztetxean kontzertua emango duena. 10ak aldera izango ei da kontzertua.

Astelehenean ATBn
ZALDIBARKO TXAPELKETARI BURUZKO
PROGRAMA BEREZIA (9'30etan)

Z E R N A H I A G O ?

Joseba Zubiaga Musakola gasolindegikoa



- Egunean zenbat lanordu? Zortzi.
- Zein gasolina mota saltzen da gehien? Super-a eta gasoleoa.
- Ordaindu gabe joaten den jenderik badago? Kontuak ateratzen ez direnean hori pentsatzen dugu.
- Zer gauza gehiago egiten duzue hemen? Koteak garbitzen ditugu, makinak zaintzen ditugu eta baita lorategia ere.
- Noiz ezagutu duzu gasolina merkeen? Orain sei urte Super-a 80 ptatan zegoen.
- Noiz igoko da gasolina berriro? Ez dakit, hori "goikoek" erabakitzen dute.
- Krisialdiak igartzen dira gasolindegietan? Bai, jendeak pentsatzen duena baino gehiago igartzen da.
- Asteburuetan nola antolatzen zarete? Erreleboetan eta horrela ez da hain gogorra egiten.
- Orain edonon aurkitu dezakegu gasolindegi bat: Zergatik "boom" hori? Ez dakit, lehen herri barruan egoten ziren gehienak baina orain kanpora atera dituzte...
- Zein egunetan izaten duzue lan gehien? Ostiral arratsaldetan eta zapatu goizetan.
- Eta egunean zehar, zein ordutan? Goizean zazpi t'erdietatik zortzi t'erdietara, eguerdian eta gauean zazprietatik bederatzietara.
- Noiz hartuko dituzu udako oporrak? Ahal badut uztailen.
- Zer duzu gustokoen egitea aisialdian? Denetarik; musika entzutea, zinera joatea, irakurtzea...
- Arrain bat? Bixigua.
- Kirolari bat? Indurain.
- Aznar eta Gonzalezen artean aukeratu behar izango bazenu? Ez nuke bat ere aukeratu.
- Kafezalea zara? Bai.
- Filme bat? Pulp Fiction.

LABURRAK

Argazki Rallya

Asa elkarteak argazki rallya antolatu du ekainaren 11rako Epelde, Laso Arregi, Imagen, Ikatz, Arrasateko Udala eta Kajoi tabernaren laguntzaz.

Parte hartu nahi duten guztiak, egun horretan bertan, goizeko 8.30etatik 9.30etara bitartean egin beharko dute izenematea herriko plazan. Izenematearekin batera 1000 pta ordaindu beharko dira eta antolatzailerek gaiak eta ibilaldia zein izango den eman-goto dute jakitera. Karreteak ere ordu horretan banatuko dira.

Argazkiak egin eta gero, arratsaldeko ordubietan entregatu behar dira karreteak herriko plazan. Partehartzailak ekainaren 16an pasatu beharko dira ASA elkartearen lokaletik euren karreteak jaso eta gai bakoitzeko argazki bat aukeratu eta aurkezteko.

Epaimahaiaren erabakia ekainaren 21ean arratsaldeko 8etan jakinaraziko da ASA elkartearen lokalean. Proiektzioa eta sari banaketa ekainaren 22an Monterronen arratsaldeko 7.30etan izango da. Lau sari emango dira.

NEGU X GORRIAK
DUT PIPERRAK
TUTERA 95-VI-17
NAFARRA GINEZ
Zezen plazan • Ekainak 17. • Gaueko 9etan

ARRASATEKO SAN VIATOR IKASTOLAK, honako prestakuntza duen pertsona baten beharra du: **PSIKOLOGIA LIZENTZIATUA**

- Magisteritza eta esperientzia izatea baloratuko da.
 - EGA tituloduna.
- CURRICULUMAK bidali ekainaren 21a baino lehen.
Helbidea: Arrasate Pasealekua, 10
20.500 ARRASATE

UDAKO Ikastaro Intensiboak 95

AKADEMIA
BASTIDA
INEM-94 HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 32 16
Fax: 79 06 28

ONARRIZKO OFIMATIKA
PROGRAMAZIO INFORMATIKA

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA
PYMEetan

GIZA ERREKURTSOEN
ADMINISTRAKETA

MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

EUSKERA

INGENIERITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

ABUZTUAN
ERE
PRESTATZEN
DA



erriko hiru apaiz gaztek Venezuelako lurretara misiolari joatea erabaki zuten 1959an. Urte hartako urrian despedida egin nahi izan zieten euren lagunek eta afari hartan atera zuten erretratu hau, Centro de Acción Católicaaren lokalean. Juan Garai, Jabier Mendizabal eta Jose Mari Mendizabal ziren apaizok, azken hori oraindik orain hil dena. Euren batera joan zen Txomin Armendariz abade eskoitzarra ere.

Afalostean, kafea hartzen ari zirela Jose Mari Mendizabalek telefonoz dei egin eizion Eskoriatzara Txomin

Armendariz lagunari, eta hark soinua entzun zuenean, berehala bertara etorri ei zen. Horregatik ageri da erretratuan taldearekin batera. Armendariz da hemendik joandako apaizen artetik oraindik ere Venezuelan jarraitzen duen bakarra.

Atzean, ezkerretik hasita, soinu-jolea, **Eusebio Gomez, Eugenio Otxandiano, Jose L. Otxandiano, Iñaki Inda, Jesu Aranzabal Rafeel Ortubai, Antonio Otxandiano, Carlos Beltran, Luis Gorostiza eta Adrian Palacios.**

Erdiko lerroan, ezkerretik

hasita, **Jose Mari Loiti, Jose Mari Oruna, Ramon Ezkurre, Sabin Zubizarreta, Alberto Abasolo, Jabier Lamarain, Fermin Aranbarri, Juan Aranbarri, Esteban Garai eta Jose Mari Arzamendi.**

Mahaiaren inguruan jarrita, ezkerretik hasita, **Jose Luis Abarrategi, Casimiro Barandiaran, Jose Mari Ortubai, Gabriel Mendizabal, Juan Garai, Txomin Armendariz, Jabier Mendizabal, Jose Mari Mendizabal, Ramon Palacios eta Jose Luis Abasolo.**

H



Ikerne Heriz

Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA


Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

• ESAERA •

“Kazetariak, euliak bezala, kaltegarriak baino, aspergarriak dira”


DANA

• JEROGLIKOA •



Non ikusi zenuen pelikula?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Altube, soinu tresnen egilea. 8. Arabako udalerrria. 9. Neu. 10. Azido erribonukleikoaren sigla. 12. Abegi on egiten duena. 15. Bizki. 16. Betekada. 17. Zerbait edaten duena. 19. Izquierda Unida. 20. Sei bider ehun.

Bertikalak 1. Erreminta. 2. Lanbide, ofizio. 3. Rutenioa. 4. Eragiten duena. 5. (Ald.) Asia-ko estatua, lehen Pertsia. 6. Irmo, sendo. 7. XIA-Neko kontsonanteak. 11. Erregelak. 13. Zerbait egiteko materiala. 14. Ogia egiten duena. 18. (Ald.) Helioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Harro zaude egin duzunagatik baina egia esan ez da pozik egotekoa.

Taurus Patxada handiegian bizi zara eta horrela ezer gutxi aurreratuko duzu.

Gemini Makal ikusten zaizu. Bitaminak hartu beharko zenituzke.

Cancer Mendia igotzen hasi eta ton-torra ezin lortu. Hori da marka!

Leo Asteburuko gau giroak erabat txorutzen zaitu.

Virgo Izatez ez zara oso ausarta baina laguntza ematen badakizu.

Libra Zorrak ordaintzen ez badituzu, lagunekin arazoak izango dituzu.

Scorpio Esanak esan, nagia zarelako deitzen duzu telepizzara.

Sagitarious Lan asko egiteak arrisku bat izaten du, lagunak galtzea.

Capricorn Norekin ezkonduko zara? Horra hor gakoa!

Aquarius Igandean familiarteko bazkaria izango duzu eta beti bezala iskanbila ez da faltako.

Piscis Lo-belarrak hartu beharko dituzu lasai lo egiteko.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



Zaldibarko irabazleak Mondrasport-en

Datorren astelehenean, Zaldibarko Futbito Txapelketako irabazleak ezagutu ahal izango ditugu, ATBko platoraino hurbilduko baitira Mondrasport saioan parte hartzeko. Gainera, txapelketa osoan zehar gertatutako gorabeherak ezagutu eta ordu erdi dibertigarri

bat pasatuko ahal izango duzu ATB ikusiz. Programa Zaldibarko txapelketako irudiz osatuta egongo da, beraz, ez da ezer faltan izango. Ez ahaztu: astelehenean Titu eta Iñakirekin batera, Zaldibarko finala Mondrasport-en!

PROGRAMAZIOA




- 11 astelehena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport berezia. "Zaldibarko Finala"
22.00etan
"Egunkaria Jaia" programa berezia. Igandean zehar jasotako irudiekin eta egindako elkarrizketekin, "Egunkaria Jaia"n gertatutako guztia ikusi ahal izango duzu.
- 12 Asteartea**
13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
- 13 Asteazkena**
13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Gazte-Nahaste "Gazteen joera estetikoak udara begira"
- 14 Osteguna**
13.30etan
Gazte-Nahaste (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Trebelanak
- 15 Ostirala**
13.30etan
Trebelanak (errep.)
19.50etan
Kukaratxa Motel berezia. "Ernesto izatearen garrantzia" antzezlanerako lau sarrera zozketatuko dira.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

KOMIKIA



Saguzor



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1 Lorentxo, 8 Agurain, 9 Ni, 10 ARN, 12 Abegikorrain, 15 Biki, 16 Oka, 17 Edale, 19 IU, 20 Setahun.
Bertikalak: 1 Lanabes, 2 Ogi-bide, 3 Ru, 4 Eragile, 5 Iran, 6 Tin-ko, 7 Xn, 11 Arau, 132 Ekai, 14 Okin, 18 He.
Jergifikoa: Bideoan.

Etxebizitzak

- **Laredon uda partean** etxebizitza alokatzen da. Interesatuok dei egin inuntzean 79 31 47 tfnora.
- **Peñiscolan pisua alokagai** hondartzatik gertu. Tfnoa: 79 57 31.
- **Torrevejan apartamentua** alokatzen dut aste-ka edo hamabostaldika. Guztiz jantzita dago eta hondartzaren ondoan. Tfnoa: 78 14 72.
- **Garaje itxia salgai**. 20 m². Uribarri etorbidean. Pal ferreteriaren azpian. Tfnoa: 79 54 03.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan**. Tfnoa: 79 30 72.
- **Bi oheko gela alokagai**. Tfnoa: 79 07 73
- **Pisu bila ari gara**. Eskola Politeknikoaren ondoan bada hobe. Lau-bost lagunendako. Tfnoa: 18 03 78 (astebukaeratan deitu).
- **70m²ko lonja alokatzen da**. Ura eta argia ditu. 40.000 pta.
- **Arrasaten lau edo bost** lagunendako pisua alokatzen da. Tfnoak: 77 03 38 edo 79 18 03.

Lana

- **Maila guztietako ingeles klaseak** ematen dira; baita azterketak prestatzen lagundu ere. Tfno: 79 53 40.
- **Lanak ordenadorez pasatzen dira** eta itzulpenak (ingelesetik-gaztelarrera, gaztelaratik-ingeleseara) egiten dira. (kanadiarra). Tfno: 79 53 40.
- **Astebukaerarako Dukiena** jateak zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.
- **Esperientziadun neska** bat eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 71 44

27. Rakel.

- **Neska pres** etxeko lanak egin eta umeak zain-zaitzeko. Tfnoa: 71 48 50.
- **Emakume euskalduna** etxeak garbitu eta umeak zainzuzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neska** umeak zainzuzeko prest. Dei egin arratsaldeko 4ak arte 79 77 94 tfnora.
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 9etatik 10etara. Tfnoa: 77 01 30.
- **Informatika, ingineritza edo enpresa** zientzietan, lizentziatua behar da. Tfnoa: 79 42 78.
- **Pertsona nagusiak zainzuzeko** esperientziadun andra prest. Dei egin arratsaldeko edo asteburuetan 77 04 60 tfnora. Margari.
- **Kontabilitateko klaseak hartuko nituzke**. Tfnoa: 79 71 05.
- **Andra erizain auxiliarra** eta geriatrian esperientziaduna pertsona nagusiak zainzuzeko. prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Fisikako irakasle bat behar da**. Deitu 79 86 69 tfnora. Ana.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak**. Tfnoa: 79 21 56.
- **Uztailean zehar OHoko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 77 04 98.

Salerosketak

- **Karro denda** bat erosi nahi dut. Tfno: 79 55 88. Betatik aurrera deitu.
- **Suzuki DR-BIG 50 c.c salgai**. Tfno: 782979. Iban.
- **Ford Transit salgai**. 100.000 kilometro ditu. Prezio eta egoera onean. Tfno: 714894. Joxe Mari.
- **Kotxea amildegitik behera**, soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin

badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnoa: 79 76 92. Juanito

- **Siberian Husky arrazako txakurkumeak salgai**. Tfnoa: 79 09 54.
- **Kotxea salgai**. Opel Corsa Swing. SS-U. Oso egoera onean. Dei egin: 77 02 81.
- **Sukaldeko altzariak salgai**, sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauen 79 01 66 tfnora. Arantzazu.
- **Collie kumeak salgai**. Dei 79 08 98 tfnora.
- **Cady markako motor beltza salgai**. Asegurua dauka iraila arte. 30.000 ptatan. Tfnoa: 77 09 36.
- **ONDA 200 Trail erakoa** saltzen dut. 180.000 pta. Kaskoa oparitzen da. Tfnoa: 79 69 66.
- **Kanpinerako karro-denda salgai**. Tfnoa: 76 37 82.
- **Vespa 200 beltza SS-W salgai**. Tfnoa: 79 46 98.
- **Bi ohedun altzari tolesgarria** oparitzen dut. Neuriak: 2.15 x 2.60. Tfnoa: 77 01 27 / 79 13 26

Denetarik

- **Apirilaren 29an** eraztuna galdu zitzaidan azokan. Eraztunak 3 brillante eta 4 rubi ditu. Tfno: 79 00 04.
- **Gasteiza joaten naiz eguneru**, eta goizeko 8etarako bertan egon behar dut. Norbaitek joateko autoa nahi badu. Tfno: 79 80 91. (Gauetz deitu).
- **Joan den larunbateko SFX-eko** abesbatzen topaketetan klabez betetako kaxa bat desagertu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfno: 79 64 79.
- **Musika talde bat**, beste talde batzuen bila dabil lokal akondizionatu bat konpartitzeko. Tfno: 799134. Miguel.

Aste Gazte

Bekak

- Bretaña Handian zein Estatu Batuetan 96-97 ikasturtean ikasketak hedatzeko beka, "La Caixa" Fundazioak deituta. Lizentziatuei zuzenduta. Epea: ekainak 30.
- "Teruelgo Diputazioak eta Grupo Endesak" bost beken deia egiten dute Arte Plastikoetan. Epea: ekainak 30.
- "AIEK (Artista, interpretari edo egileek)" 95-96 ikasturterako honako deialdia egiten du. Musikarako ikasketen zabaltze eta sakontzeko 10 beka eta Goi espezializazioko 10 beka, Espainian nahiz atzerrian, musika irakaskuntza zentru ez ofizialetan. Musika ikasleei

zuzenduta. Epea: ekainak 30.

- "Spain-USA 2.000" edozein alorretan ikasketak zabaltzeko 12 beka. Lizentziatuei zuzenduta. Ingelesa menperatzea nahitaezkoa da. Epea: ekainak 16.

Lana

- Nafarroako Osasun Zerbitzuak, osasunbideak, honako lanpostu hauek kaleratu ditu. Administrazio publikoko 3 teknikari; Anatomia Patologikoko 3 teknikari; Informatika teknikari 1; Biologo kliniko 1; 3 Matrona; Zerbitzu arduradun 2; 10 fisioterapeuta; 65 Klinika laguntzaile; 83 ATS-DUE. Epea: ekainak 14

Kirola eta abentura (Diputazioa)


- 18-29 urte bitartekoei zuzendutako oporraldi egitarau ezberdinak: ibilaldi kulturalak, uretako ekintzak, ibilaldia oinez... Plaza mugatuak. Izenematea, Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

- Eusko Jaurlaritzako, kultura sailak "Enpresak eratzeko gazteentzako X. ideia-lehiaketa" plazaratu du. 18-30 urte bitartekoei zuzendua. Ideiaren bat baduzu eta nola garatu ez badakizu edo proiektua burutzeko laguntza behar baduzu, aholkularitza dohainik eskainiko dizute. Epea: uztailak 21.

"Ikus ezazu bizitzaren alde ona: ez du axola duzun adina, inoiz ez zara berriz gaur bezain gazte izango."

CURRENT COMEDY




Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Jose Samartza

Bañez Doktorea, 1 • Tfnoa: 79 18 92 • ARRASATE

Ez geratu oporrik gabe zure sukalddea jaztearren



FAGOR →

ALTZARI SUKALDEAK

Promozio baligarria ekainaren 1etik uztailaren 15ra arte.



Mecak bere bizitasuna, garra, konfort-a, erosotasuna eta zure zerbitzura dauden Renault produktuen teknologia, instalakuntzak, material eta giza baliabideak konpartitzeko gozamenen parte hartzera gonbidatzen zaitu.

KONPARTITUTAKO PLAZERRA



MECA

